

GAZTELANIAZKO ADJEKTIBO ERREFERENTZIALEN EUSKAL ORDAINAK ETA ERABILERA

Edorta ESPAÑA OCIO

HAEEko Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko
itzultzailea

ADJEKTIBO ERREFERENTZIALAK. SARRERA

Euskarak, oraindik ere hizkuntza normaldua ez den heinean, baditu argitu beharreko zenbait puntu, izan ere, puntuon arau-ezak honelako-halako zalantzak sortzen baititu hitzun-idazleengan. Kasu horretan gengoke gaztelaniazko nahiz frantsesezko adjektibo erreferentzialak euskaraz ematean.

Euskal itzulpenen munduan murgilduta dagoen edozeinek ondo daki zeinen erraz itzul daitezkeen adjektibo erreferentzialok, baldin eta mailegua eta egitura-kalkoa erabiltzen baditugu (*entorno político-mediático: ingurumari politiko-mediatikoa*); edo zeinen zaila, batzuetan, baldin eta beste bide batzuk jorratzen baditugu (*politika eta komunikabideetako ingurumaria; edo politikako eta komunikabideetako ingurumaria; edo politika- eta komunikabide-ingurumaria...*, jakina, horiek guztiak baliokideak), eta, gainera, zenbaitetan, ziurtasun osorik gabe ordainak bete-betea asmatzen ote duen.

Itzultzaileon intuizioak adierazten digu badirela adjektibo-mota honen zenbait aldaki, eta euskaraz ezin direla beti prozedura berean eman.

Bestalde, Euskaltzaindiak hitz elkartuen bidea proposatzen du adjektibo erreferentzialak itzultzeko (1995eko urtarrilaren 27an onartutako araua). Dena dela, eta zeharka bada ere, onartzen du badirela adjektibo erreferentzialen mota bat baino gehiago, eta, horregatik, "...ahal den guztian...", ez beti, erabili beharreko modua dela, izan ere, eguneroko jardunak frogatzen baitigu ez dela beti posible izaten formula horretara jotzea. Esan nahi baita, era honetako adjektibo-multzo ezberdinak daudela, eta gaztelaniaz formula bakarraren bidez ematen badira ere (izena + adjektibo erreferentziala), euskaraz ezin dugula beti modu bakarrean geratu.

Ondorengo orrialdeetan datorren azterlanak, honenbestez, abiapuntu teorikoa eta praktikoa biltzen ditu. **Corpus teorikoari** dagokionez, hauxe:

- a) Euskaltzaindiaren arauak (hitz elkartuak)
- b) "Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak" Martxel Ensunza (EHU).
*Eusker*a aldizkaria (Euskaltzaindia)
- c) "Adjektibo erreferentzialen erabilera". Miel Loinaz. *Berba* aldizkaria(UZEI)

Administrazioko itzultzaileen aldetik, interesgarria da zein nolako jokabidea jarraitzen den administrazioetako aldizkari ofizialetan arlo honi dagokionez. Hortaz, hauxe izango da *corpus praktikoa*: Euskal Herriko hegoaldeko herri-administrazioetako aldizkari ofizialak (autonomia-gobernu bietako zenbait aldizkari eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak). Baina hori nahikoa ez zela-eta, beste bat gehitu diot: Bitarteko Eusko Jaurlaritzako aldizkari ofiziala (*Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa*).

Abiapuntu horietatik, hiru aztergai nagusi planteatuko dira lanean:

- a) Adjektibo erreferentzialak amaieraka **multzokatzea**, emandako irtenbideak **zerrendatzea** eta, azkenik, begiratzea **bat ote datozen** corpus teorikoak jasotako azalpenekin. Ondoren, zenbait estatistika-datu eskainiko dira; **erabilera-datuak** izango dira, beraz.

Bestalde, erabilera-datu horietatik, zenbait joera deskribatuko ditugu adjektibo erreferentzialen eremuan.

- b) Gorago aurreikusi bezala, esan genezake bi aldi zehatz daitezkeela arlo honi dagokionez: bata, Euskaltzaindiak arlo honi buruzko erabakia **eman aurretik** eta, bestea, **eman ondoren**. Horiexek izango dira, hortaz, lagin-aldiak. Azterketa horrekin, ikusi nahiko genuke norainoko eragina eta oihartzuna izan duen arau horrek idatzizko testuetan, eta, zehazki, administrazio-testuetan.

- c) Azkenik, tarte berezia eskainiko diogu **Lehenengo Jaurlaritzako aldizkari ofizialari** (Gerra aurrekoari), bertan, aldeak susmatuko direlakoan lehengo eta oraingo erabileren artean.

Azalpenekin hasi aurretik, esan behar da azterketaren oinarria laginketa aleatorio jakin bat dela, eta, hortaz, eskainiko diren emaitzak era horretan interpretatu beharko direla. Geroago, hizkuntzalariek erabaki beharko dute proposatutako zenbait bide zuzenak diren ala ez.

Bukatzeko esan, bada, interesgarria litzatekeela administrazioakoak ez diren testuekin ere (zientifikoak, kazetaritzakoak...) azterketa hau egitea. Horrela ikusiko litzateke bertan eskaintzen diren datuak erabatekoak diren, edo laginketa soil horren ispilu.

ADJEKTIBO ERREFERENTZIALAK. LAGINKETA

IRIZPIDE OROKORRAK

1.- Laginaldiak

1995eko urtarrila erreferentziatzat hartuta (Euskaltzaindiak hitz elkartuei buruz emandako araua), 1992ko urtarrila eta 1997ko urtarrila hartu ditugu laginalditzat.

2.- Sarrera-kopurua

Guztira 2407 sarrera egin ditugu, honela banatuta:

ALDIZKARI OFIZIALAREN IZENA	KOPURUA	EHUNEKOA
Arabako Aldizkari Ofiziala (ALHAO)	171	%7.10
Bizkaiko Aldizkari Ofiziala (BAO)	508	%21.10
Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA)	389	%16.16
Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa (EAE)	399	%16.57
Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (GAO)	508	%21.10
Nafarroako Aldizkari Ofiziala (NAO)	432	%17.94

GUZTIRA	2407	%99.97
----------------	------	--------

1. taula. Laginketatik lortutako sarrera-kopuruak, boletinka.

3.- Nola hautatu ditugun sarrerak

Xedapen-testu baten barruan behin hitz bat agertutakoan, ez da berriz jasoko hitz hori xedapen horretan; bai, ordea, beste xedapen batean azaltzen bada.

4.- Adizetik datozen adjektibo erreferentzialak (“*deuda impugnada*”)

Ez ditugu honelako adjektiboak jaso, oro har, ez baitute arazo handirik sortzen.

ADJEKTIBO ERREFERENTZIALAK. ERABILITAKO AUKERAK

Komunikazio honen laburpenean esan legez, azterlanaren oinarri teorikoa Martxel Ensunzaren *Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak* artikulua izan da (Euskera aldizkaria; Euskaltzaindia /1989ko 2. alea; 577-596 orrialdeak). Ensunzak bost bide nagusi proposatu zituen adjektibo erreferentzialak euskaratzeko, bi multzotan banatuta:

1. Bertoko baliabideak

- a) konposizioa (hitz-elkarketa edo hitz elkartua)
- b) izenlaguna
- c) eratorpena
- d) dun elementuaren bidezko hedapena

2. Bestelakoak

- e) mailegutza

Guk bost bide horiei seigarrena gehitu diegu, bestelako aukeraren bat agertuko bazen ere.

Horiek horrela, hauexek izan dira emaitzak:

Emaitza orokorrak

AUKERA	KOPURUAK	EHUNEKOAK
Dun	28	1.16
Eratorpena	272	11.30
Hitz elkartua	757	31.44
Izenlaguna	547	22.72
Mailegua	440	18.28
Besterik	363	15.08
GUZTIRA	2.407	

2. taula. Aukeren araberrako banaketa

Baina zuzentasunez jokatzeko, beste ñabardura bat sartu beharko genuke. Gerra aurreko boletineko datuetan, garaiko joera dela medio, ez da mailegu bat bera ere erabiltzen adjektibo erreferentzialak euskaratzeko. Hortaz, pentsa liteke, estatistika orokorra ikututa gera zitekeela datu horregatik, baina, datuak doitu ondoren, ez da horrela gertatu, eta erabilera-hurrenkera bere hartan gelditu da.

Komunikazioa azaltzeko denbora urria dela-eta, ateratako ondorio nagusiak aipatuko ditugu besterik gabe.

KASUZ KASUKO AZTERKETA

1.- Bertoko baliabideak

HITZ ELKARTUA EDO HITZ-ELKARKETA

Aukera-banaketen taulako (2. taula) datuek argi erakusten dute hitz elkartua dela biderik erabiliena (%31.44). Datu hori boletin guztietan berresten da, Nafarroakoan izan ezik. Izan ere azken kasu honetan, mailegutza baita nagusi (%29.4), hain zuzen ere, hitz elkartua aukeratik zazpi puntura.

Emaitzok aintzat harturik, esan liteke Euskaltzaindiaren arauak eraginkortasuna duela. Hala ere, gure ustez, egokitu beharko litzateke, hitz-elkarketa ez baita adjektibo erreferentzialak sortzeko bide bakarra. Ikus bestela 2. taula.

IZENLAGUNA

Erabilera-sailkapenean bigarrena da, baina boletinka aztertuz gero, banaketa apur bat aldatzen da.

Nolanahi ere, argi geratzen da izenlagunaren eta *hitz elkartuen* eremuek gune komunak dituztela. Ikus grafikoa:

Bestalde, eta datuak ikusita, eskatuko genioke Euskaltzaindiari gomendio edo aholkuren bat eman dezan -zko eta -ko izenlagun-marken inguruan, izan ere, gure aburuz, gai honetan gehiago jokatu da zurrumurruekin ziurtasunarekin baino.

ERATORPENA

Aukera honen barruan, Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa da gehien erabili duena. Arrazoa, gure ustez, argia da, alegia, boletin honetan ez zuten mailegu bat bera ere sartu adjektibo erreferentzialak emateko, eta, hortaz, konpentsazioren bat gertatzen da gainerako aukera guztiekin.

DUN

Erabilera orokorra oso urria izan da (%1,16). Izan ere, baliabide honekin sortutako adjektiboek edutezko erreferentziaren bat gorde behar baitute beren baitan.

2.- Gainerako baliabideak

MAILEGUA

Oso baliabide emankorra eta, oro har, erabilterraza da. Gure datuen arabera, hustutako adjektibo erreferentzialen %18.28 maileguen bidez euskaratu dira.

Baliabide honen erabilerak bi jokabide-mutur izan ditu gure laginketan:

a) Nafarroako Aldizkari Ofiziala (%29,4):

Dena dela, boletin honetan aurkitutako maileguetatik (127) 33 beste teknika batzuen bidez itzuli ahal izango ziren (iritziak iritzi), eta horrela beste boletinen erabilera-ehunekoen parean jarriko zen.

b) Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa (%0). Garai hartako garbizaletasun-giroa kontuan hartuta ulertzekoa da datua.

Gaur egun, ordea, ezinbestekoa da maileguaz baliatzea, egunean-egunean kontzeptu berriak sortzen ari baitira orain arte euskaraz izan ez direnak.

BESTERIK

Aukera honetarako, guk nolabaiteko sistematizazioa egin dugu itzultzaileen ikuspuntutik: azalpena, adjektiboa egokitu (sinonimoak), ezabapena, modulazioa, ordaina eman besterik gabe, transposizioa eta denetarik.

Datuek erakusten dutenez, azalpena eta modulazioa dira aukera honetan gehien erabili diren azpiaukerak.

ADJEKTIBO ERREFERENTZIALAK. AZTERRALDIEN ARTEKO ALDEAK

Gogoratuko denez, bi aldi nagusi ditu gure azterketak: Euskaltzaindiak hitz elkartuei buruzko araua eman baino lehenago, eta eman ondoren (horretaz gain, gerra aurreko boletina ere legoke). Bildutako datuen arabera, esan genezake ez dagoela alderik azterraldi nagusi bien artean, eta arrazoa izan liteke, batetik, ezagunak zirela LEF Batzordearen eta UZEIren gomendio eta aholkuak —hain zuzen ere, gero Euskaltzaindiak gutxi gorabehera onartu zituenak—Euskaltzaindiak araua eman baino askoz ere lehenago; eta, bestetik, euskal sena dei dezakegunak laguntza ederra ematen duela hitz elkartuak osatzean.

Marren erabilerari dagokionez, eta datuak ikusita, esan behar dugu Euskaltzaindiak aukeran utzi duenean marren erabilera (eguzki-lore moduko hitz elkartuetan), oso kasu gutxitan idazten dela. Ikus:

ARAU EMAN ONDOREN	
Marrarik gabe (marra aukeran dutenak eta ez dutenak)	Marra aukeran, baina erabili ez
226	138 (%61.06)

3. taula.- Marren erabilera

Hau da, marrarik gabe idatzi diren 226 hitz elkartuetatik 138 marraz idatzi ahal izan dira (%61.06), baina ez dituzte horrela idatzi. Nolanahi ere, gure ustez, marraren erabilerak traba baino onura gehiago dakarzkio hitz elkartuen osaerari; baina errealitateak beste bide batetik jo du.

ADJEKTIBO ERREFERENTZIALAK. GAZTELANIAZKO ERATORPEN-MARKAK EUSKARATZEN: HURBILPENA

Gaztelaniak eratorpena erabiltzen du adjektibo erreferentzialak sortzeko: batzuk aurrizkiak edo hitz elkartuak dira (extemporaneo, extralingüístico, subtotal, macroplan...) eta besteak atzizkiak (administrativo, didáctico, foral...).

Burutu dugun laginetako emaitzak ikusita, lehenengo ondorioa da eratorpen-marka horiek batzuetan amaiera garbiak direla, alegia, marka bakarra dutela, adibidez, *-al*, *-ar*, *-iva...* (local, escolar, organizativa...); beste batzuetan, berriz, gaztelaniazko adjektibo erreferentziala osatzeko marka bat baino gehiago behar dira, esate baterako, *-al/-aria*, *-oso/-iva...* (foral tributaria, contencioso-administrativa...). Hona hemen, honenbestez, datu orokorrak:

AMAIERA GARBIAK (ERATORPEN-MARKA BAKARRA DUTENAK)

Erabilitako marka	Kopurua
al	740
ante/ente	70
ar	38
aria-o	215
ble	51
era-o	24
ica-o	470
il	67
iva-o	226
ola-ol	16
oma-o	23
ora-or	90
oria-o	34
osa-o	20
gainerakoak (denetarik)	143
GUZTIRA	2.227

4. taula. Amaiera garbien erabilera-kopuruak

Amaiera nahasiak dituztenek (*-al/-aria...*), berriz, ez dute aukera handirik ematen datu ebaluagarriak lortzeko (datu urriak). Horiek, beraz, ez ditugu aztertuko.

MARKAZ MARKAKO AZTERKETA

Hauexek dira, markaz marka, erabilitako aukeren kopuru absolutuak. Erlatiboak, hots, ehunekoak, berriz, kasu bakoitzean komentatuko ditugu.

AMAIERA GARBIAK (KOPURUAK)

Aukera	Dun	Eratorp ena	Hitz elkartua	Izenlgu na	Mailegua	Besterik
Amaiera						
AL	1	49	295	187	127	81
ANTE/ENTE	10	18	7	11	---	24
AR	1	5	21	7	3	1
ARIA-O	9	23	60	72	13	38
BLE	---	22	6	10	---	13
ERA-O	---	2	14	8	---	---
ICA-O	3	13	134	60	196	64
IL	---	7	39	7	7	7
IVA-O	---	30	82	53	33	28
OLA-O	---	9	4	2	---	1
NOMA-O	1	2	10	---	7	3
ORA-OR	3	39	19	18	1	10
ORIA-OR	---	8	2	19	---	5
OSA-O	---	8	1	6	1	4
...						

5. taula. Eratorpen-markak eta aukerak.

1.- AL (740 sarrera)

Adibideak: dato laboral, edificio pluridepartamental, relación nominal...

Gehien erabilitako aukera: hitz elkartua (%39.86)

Ondorioa: -AL amaierako adjektibo erreferentzial gehienak bertoko baliabideekin osa daitezke (%71.85), eta bereziki **hitz-elkarketaren** bidez (%39.86). Arrazoa begi bistakoa da: amaiera hori duten adjektiboek normalean erreferentzia argia izaten dute; adibidez, profesional (profesión), social (sociedad), local (lugar)... Beste asko, berriz, ez daukate erreferentzia argirik, eta horiek, besteak beste, mailegatu behar dira.

2.- ANTE/ENTE (70 sarrera)

Adibideak: órgano habilitante, entidad solicitante, adoptante...

Gehien erabilitako aukera: besterik (%34.28)

Erabilera-ehunekoek besterik aukera hautatu dute era honetako adjektiboak itzultzeko bide erabilientzat. Gogoratuko denez, aukera honetan, besteak beste, azalpena, ezabapena, modulazioa, transposizioa... erabiltzen da, alegia, itzultzaileok hitzekin egiten ditugun jokoen barruan sartuko litzateke hau. Hala ere, *eratorpena* ez da bazter egiteko aukera.

3.- AR (38 sarrera)

Adibideak: servicio auxiliar, dependencia consular, curso escolar...

Gehien erabilitako aukera: hitz elkartua (%55.26)

Bildu ditugun kasuetan, nabarmena da *hitz elkartua* aukeraren pisua (%55.26), baina lagin-kopurua dela-eta, ezin da, gure ustez, ganorazko ondorioz eskaini, edo eta ez gara ausartzen.

4.- ARIA/ARIO (215 sarrera)

Adibideak: institución sanitaria, ley presupuestaria, norma subsidiaria...

Gehien erabilitako aukera: izenlaguna (%33.48)

Aurrekoan ez bezala, eratorpen-marka honen lagin-kopuruak (215) bide ematen digu joera orokorra zehazteko. Bi aukera nagusitu dira ordainak ematean: *hitz elkartuak* eta *izenlagunak*, biek batera %61,38 osatuta.

5.- BLE (51 sarrera)

Adibideak: actuación subvencionable, gas combustible, área edificable...

Gehien erabilitako aukera: eratorpena (%43.13)

Esan liteke, beraz, euskal eratorpena funtsezkoa dela -ble atzizkia euskaratzeko; alegia, gaztelaniazko atzizki bati euskal beste atzizki bat egokitzeko. Gainera, azterlanean zehar esan dugun bezala, honelako bidea erabiliz gero, aukera legoke graduatzaileak erraz-erraz sartzeko.

6.- ERA/ERO (24 sarrera)

Adibideak: operación financiera, recinto ganadero, producto petrolífero...

Gehien erabilitako aukera: hitz elkartua (%58.3)

Ehunekoek argi erakusten dute zein den biderik erabiliena: *hitz elkartua* (%58.3), eta jarraian *izenlaguna* (%33.3), bien artean %91.6 osatzen dutela. Baina kopuru absolutuei erreparatzen badiegu, ezin dugu ondorio borobilik atera, oso lagin-kopuru txikia delako.

7.- ICA/ICO (470 sarrera)

Adibideak: guía didáctica, destreza lingüística, ordenamiento jurídico...

Gehien erabilitako aukera: mailegua (%41.7)

Taulan ehunekorik handiena duen aukera *maileguarena* da. Izan ere, -ico (ica) markarekin osatzen diren adjektibo erreferentzial askok erreferentzia argia galdu baitute, eta horrelakoetan mailegatzea da biderik egokiena eta ohikoena. Dena dela, erreferentzia erraz antzematen denean, *hitz elkartua* da biderik erabiliena.

8.- IL (67 sarrera)

Adibideak: gobierno civil, derecho mercantil, educación infantil...

Gehien erabilitako aukera: hitz elkartua (%58.2)

Datuek argi erakusten dute zein den -IL amaierarako biderik erabiliena, inolako zalantzarik gabe: *hitz elkartua*. Eta edonola ere, bertoko baliabideak hartuta, %72,2 itzul genezake.

9.- IVA/IVO (226 sarrera)

Adibideak: recaudación ejecutiva, procedimiento organizativo, cláusula administrativa...

Gehien erabilitako aukera: hitz elkartua (%36.28)

Datuak ikusita, gomendio moduko zerbait eman genezake: IVA (IVO) amaierako adjektibo erreferentzial gehien-gehienak bertoko baliabideekin eman daitezke (%80.96), eta bereziki **hitz-elkarketaren** bidez. Arrazoa: AL amaierakoetan bezalaxe, erreferentzia argia izatea.

10.- OLA/OL (16 sarrera)

Adibideak: explotación agrícola, nacionalidad española...

Gehien erabilitako aukera: eratorpena (%56.25)

Ehunekoak ikusita, *eratorpena* da biderik usuen laginketa honetan, baina datuen urritasuna ikusirik (16), ez gara ezer proposatzen ausartzen.

11.- NOMA/NOMO (23 sarrera)

Adibideak: comunidad autónoma, ingeniero agrónomo...

Gehien erabilitako aukera: hitz elkartua (%43.47)

Joera argia da, *hitz elkartuaren* alde, baina maileguarena baztertu gabe. Dena dela, datuen kopuruak ez digu aukerarik ematen balorazio zabalagoa egiteko.

12.- ORA/OR (90 sarrera)

Adibideak: medida correctora, ley protectora, órgano rector, letrado indicador...

Gehien erabilitako aukera: eratorpena (%43.33)

Taulari begiratu bat ematea nahikoa da erabilera nondik doan ikusteko. Bildu ditugun datuen arabera, -ORA (OR) atzizkia da, -BLE atzizkiarekin batera, adjektibo erreferentzialak euskaratzean *eratorpena* gehien erabiltzen uzten duen atzizkia.

13.- ORIA/ORIO (34 sarrera)

Adibideak: disposición transitoria, nota aclaratoria, valoración contradictoria...

Gehien erabilitako aukera: izenlaguna (%55.88)

Ehunekoek argibidea ematen badigute ere (%55.88), kopuru absolutuek ez digute behar besteko informazioa eskuratzen erabateko baieztapena egiteko. Kasu honetan, dena dela, *eratorpenak* ere pisu handia luke (%23.52).

14.- OSA/OSO (20 sarrera)

Adibideak: expropiación forzosa, actividad peligrosa, título oneroso, estudio minucioso...

Gehien erabilitako aukera: eratorpena (%40)

Aurrekoan bezala, hemen ere datuen kopuruak ez digute arau orokorrik-edo ematen uzten. Dena dela, dirudienez, bertoko baliabideek (%75) aukera nahikoa emango lukete adjektibo erreferentzial hauek euskaratzeko.

ADJEKTIBO ERREFERENTZIALAK. ERREFERENTZIALEN ERABILERA: BI JOERA ETA ÑABARDURA BAT

Miel Loinazek, *Adjektibo erreferentzialen erabilera* artikuluan, honela dio: “*Joera orokorra, eta salbuespenak salbuespen, honela formula liteke: zenbat eta indar handiagoa duen erreferentzial-izaerak, orduan eta errazago ordezen dira erreferentzialak hitz-elkarketarekin; eta, alderantziz, zenbat eta pisu handiagoa duen izaera predikatiboak, orduan eta errazago mailegutzen dira erreferentzialak.*”. Grafikoki, honela litzateke:

Erreferentzia-izaera	Izaera predikatiboa
“Procedimiento administrativo”	“Propiedad intelectual”
Osagai diren izenak: procedimiento eta administración	Osagai diren izenak: propiedad eta ???

Dena dela, eta datu estatistikorik ez dugun arren, uste dugu ñabardura txiki bat egin beharko litzaiokela Miel Loinazen aipamen horri: hitz elkartua osatu ahal izateko, ez da nahikoa erreferentzia argia izatea; bada kontuan hartzeko beste zerbait. Adibidez: *situación administrativa* (funtzionario publikoak administrazio publikoan duen zerbitzu-egoera). Osagai biak erraz identifikatzen dira: *situación* eta *administración*, eta hitz elkartuaren bidez lotzen baditugu, honelako zerbait lortuko genuke:

situación: egoera
administrativa: administrazio-

Beraz, *administrazio-egoera* litzateke ordaina. Baina gaztelaniazko esanahi bera al dauka? Bai eta ez. Gure aburuz, hemen hitz elkartua ez litzateke biderik egokiena, eta bai perifrasi txiki bat (administrazioarekiko egoera). Salbuespen honi buruzko datu estatistikorik atera ez badugu ere, gure ustez bada zer aztertu. Gogoetaren bat edo beste eginda, agian hauxe izan zitekeen funtzionamendu-ezaren arrazoia: hitz elkartuak ondo funtzionatzen du azpiko egituran lekuzko edo edutezko genitiboa duenean, baina beste deklinabide-markaren bat sartzen denean batzuetan ilundu edo nahastu egiten da mezua.

Bestalde, Euskaltzaindiak 1995eko urtarrilaren 27ko arauan dioenez, eraikuntza sintaktiko libreak proposatzen ditu ulergaitz izan daitezkeen hitz elkartuetarako.

Beraz, gure uste apalean, horrela birformula liteke Miel Loinazen lerroaldea:

“... zenbat eta indar handiagoa duen erreferentzial-izaerak, **eta azpiko egituran genitiboa badago**, orduan eta errazago ordezen dira erreferentzialak hitz-elkarketarekin; eta, alderantziz, zenbat eta pisu handiagoa duen izaera predikatiboak, orduan eta errazago mailegutzen dira erreferentzialak.”

ADJEKTIBO ERREFERENTZIALAK. ADJEKTIBATUTAKO EGITURA ERREFERENTZIALAK

Adjektibatutako egitura erreferentziala esatean, era honetako egiturak ditugu gogoan: *defecto formal sustantivo, ingeniero técnico forestal, plan estratégico municipal...*

Estatistikoki ikusi ahal izan dugunez, euskaraz ez da beti formula bera erabiltzen. Gure laginketan honelako 173 kasu aurkitu ditugu (%7,18), eta banan-banan aztertuta honelako sistematizazioa proposatzen dugu euskararako:

- a) *Izena gunetzat duten egiturak*. Adibidez: cláusula administrativa particular (**administrazio-klausula berezia**)...
- b) *Aditza gunetzat duten egiturak*. Adibidez: área privada no edificable (*eraikigarria ez den gune pribatua*)...
- c) *Izenlagunaren bidezko egitura*. Adibidez: Real Decreto Legislativo (**Legegintzako Errege Dekretua**)...
- d) *Ez aditzondoaren bidezko egiturak*. Adibidez: personal no docente (**ez-irakasleak**)...
- e) *Besterik*: aurreko ataletan sartzen ez direnak. Adibidez: régimen laboral temporal (*lan-eraentzan ... hilabetez...*)...

Datuei erreparatuta, hauxe da emaitza:

BALIABIDEA	KOPURUA	EHUNEKOAK
Izenaren ingurukoa	53	30.63
Aditzaren ingurukoa	17	9.82
Izenlagunaren bidez	85	49.13
EZ aditzondoaren bidez	5	2.89
Besterik	13	7.51
GUZTIRA	173	

6. taula. Adjektibatutako egitura erreferentzialak euskaratzeko moduak

Bi baliabide dira, beraz, honelako kasuetan gehien erabiltzen direnak: *izenlagunaren bidez* eta *izenaren ingurukoa* (c eta a atalak hurrenez hurren). Biak batera ehuneko handira iristen dira (%79.36); hortaz, bi aukera hauen inguruan muga genezake egitura hauen itzulpena.

Aipatzekoa da, bestalde, laginketa honen testuetan oso gutxitan kalkatu dela gaztelaniazko egitura bera (%3.46), hau da, gaztelaniaz, *centro técnico asistencial* dioen lekuan *zentro tekniko asistenciala* ipintzea.

ADJEKTIBO ERREFERENTZIALAK. ZENBAIT IRUZKIN ETA PROPOSAMEN

1.- Dvandva elkarteak

Administrazioan barra-barra erabiltzen dira adjektibo erreferentzialen bikoteak. Adibidez: *control económico-financiero, gestión administrativa-financiera*...

Azken adibide honek (*administrativa-financiera*...) aukera ematen digu beste gogoeta bat egiteko. Hitz elkartuen aukeren barruan, besteak beste, *dvandva* elkarteak ditugu (hitz-elkarketa kopulatiboak), hain zuzen ere, osagai biak maila berean jasotzen dituztenak; adibidez, *aita-amak, aiton-amonak*... Orain galdera hauxe litzateke: ez al litzateke bidea izango elkarte-mota hau *económico-financiero, técnico-jurídico*... erako adjektiboak itzultzeko? Azken batez, *ekonomia-finantzako kudeaketa* esan, ala *ekonomia eta finantzako kudeaketa* esan gauza bera baita, baina lehenengoa laburragoa (hizkuntzaren ekonomia), eta ez da gutxi. Lan honetarako egin dugun laginketan (2407 sarrera), *dvandva* elkarteak duen kasu bakarra topatu dugu, eta horixe gerra aurreko boletinean. Hona sarrera: *Nagusi-Langileen Auzitegia* (Jurado Mixto). Agian, hainbeste proba egiten ibili barik, hauxe izan zitekeen kontsentsuatu beharreko modu bat.

2.- Ilustrísima, excelentísimo...

Gaztelaniazko administrazio-testuetan, kargu politikoak aipatzen direnean, joera dago hipertratamendua erabiltzeko, alegia, *Ilustrísimo Sr. Director...* Gure ustez, azken urteotan, sartu egin dira horrelako ordainak euskaraz, baina orain arteko tradiziozik gabe. Datuak askoz ere sakonago eta terminologi sarrera gehiagorekin aztertu beharko balira ere, lehenengo begiradan esan genezake, bada, gerra aurreko boletinean ez zirela horrelakoak euskaratzen; 80tik hona, berriz, bai, eta dauden joera berriak kontuan hartuta, berriro ere lehengora itzuliko garela esaten ausartuko ginatke.

Gainera, administrazioa herritarrarengandik hurbilago egon behar duela, eta hizkera argiarantz urratsak egin behar direla-eta, aurrerapausu garrantzitsua izan daiteke horrelako karguak euskaratzean graduatzaile horiek ezabatzea. Errespetu kontua bada, berdin-berdin zaintzen dugu alkate jauna, zuzendari andrea... idazten.

3.- Adjektibo erreferentzial konplexuak

Martxel Ensunzak Euskera aldizkarian dioenez, “...erreferentzial konplexu hauen inguruko kontua ez dugu oraindik sistematizatu, baina esan dezagun, ezen, zenbait kasutan, berreratorpena, konposizioa, postposizioa eta bestelako hedabide sintagmatikoak erabiliz soluzio autoktonoak aurki daitezkeen arren (.../...), gehienetan, adjektiboa mailegatu beharrean izanen garela.”

Azterlan honen hasieran esan dugunez, aurreko bost atalek irtenbide guztiak jasoko ez zituztelakoan, seigarren atal bat sortu genuen: *besterik*. Eta horri beste eremu informatiko bat ireki: *besterik zein?* Kontuan hartuta lan honen ikuspuntua itzultzaileena dela, zenbait itzulpen-teknikaren araberrako banaketa egin genuen, eta honelako sistematizazio antzeko zerbait lortu:

ERABILITAKO AZPIAUKERA	KOPURUA	EHUNEKOA
Azalpena	107	29.47
Adjektiboa egokitu (sinonimoak)	25	6.88
Ezabapena	44	12.12
Modulazioa	91	25.06
Ordaina eman, <i>besterik</i> gabe	28	7.71
Transposizioa	13	3.58
Denetarik (aurrekoen nahasketa)	55	15.15
GUZTIRA	363	

7. taula. “Besterik” ataleko azpiaukerak (boletín guztiak)

Gerra aurreko boletineko datuek eragina izango zutelakoan, behar diren eragiketarik egin ondoren, hauxe izan da ondorioa: ez dute eragin berezirik banaketa honetan.

Corpus teorikoan esaten zen “...zenbait kasutan, (.../...) soluzio autoktonoak aurki daitezkeen arren (.../...), gehienetan, adjektiboa mailegatu beharrean izanen garela.”. Gure ustez, ordea, baieztapen hori ez da erabatekoa, behinik behin laginketa honetatik ateratako datuei erreparatu gero. Ikus, bada, esandako datuak:

Erreferentzial konplexuren bat izanik, <i>mailegu</i> bidez eman direnak	42
Erreferentzial konplexuren bat izanik, <i>besterik</i> aukera erabiliz eman direnak	52

Ez dago hainbesteko alderik datu bien artean. Ensunzak aurrizki bidez osatutako adjektibo erreferentzial konplexuak aipatzen ditu (megacíclico, claustrofóbico, dinamométrico, inorgánico...) batez ere, eta horietan egia da gehienetan mailegatzea beste irtenbiderik ez dagoela; baina, gure kasuan, administrazioan, ez dira horrelako hainbeste

erabiltzen, ez behintzat zientzia-testuetan beste. Administrazio-testuetan, adjektibo erreferentzialen bikoteak izaten dira ohikoagoak.

Gogora dezagun, bestalde, *besterik* atalean bost teknika nagusi jaso ditugula (azalpena, ezabapena, modulazioa, transposizioa eta ordaina eman besterik gabe), eta horietako bat ere ez dela mailegua. Nolanahi ere, mailegua ez dela erabili azaldu dugunean, ez dugu esan nahi hitza ez dagoela mailegaturik, baizik eta adjektibo erreferentziala ez dela mailegatu.

Adjektibatutako egitura erreferentzialak izeneko atalean ikusi bezala, badira euskaraz zenbait baliabide egitura horiek itzultzeko, eta gehienak ez dira mailegu hutsak. Beraz, ñabardura egin beharko litzaioke aipamen horri.

LABURPENA / RESUMEN / RÉSUMÉ / ABSTRACT

Gaztelaniazko adjektibo erreferentzialen euskal ordainak eta erabilera. Azterketa-eremua: aldizkari ofizialak

Itzulpenen munduan murgilduta dagoen edozeinek ondo daki zeinen erraza gerta daitekeen adjektibo erreferentzialak itzultzea (*entorno político-mediático: ingurumari politiko-mediatikoa*); edo zeinen zaila, batzuetan, baldin eta egitura-kalkora jotzen ez bada (politika eta komunikabideetako ingurumaria; edo politikako eta komunikabideetako ingurumaria: edo politika- eta komunikabide-ingurumaria...) eta gainera, zenbaitetan, bat ere ziurtasunik gabe ordainak bete-beteen asmatzen ote duen.

Itzultzaileon intuizioak adierazten digu, testu baten edukia irakurritakoan, badirela adjektibo-mota honen zenbait aldaki, eta euskaraz ezin dela beti prozedura berean eman.

Bestalde, Euskaltzaindiak hitz elkartuen bidea (1995eko urtarrilaren 27an onartutako araua) proposatzen du adjektibo erreferentzialak itzultzeko, baina arauan bertan esaten denez, "...ahal den guztian...", izan ere, eguneroko praktikak frogatzen baitigu ez dela beti posible izaten formula horretara jotzea. Esan nahi baita, era honetako adjektibo-multzo ezberdinak daudela, alegia, gaztelaniaz formula bakarraren bidez ematen badira ere, euskaraz ezin dugula modu bakarrean geratu.

Honenbestez, eta azaldu dugun testuinguru horretan, azterlanak honako abiapuntu teorikoa izango du:

- a) Euskaltzaindikoko arauak (hitz elkartuak)
- b) "Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak" Martxel Ensunza. *Euskera* aldizkaria (Euskaltzaindia)
- c) "Adjektibo erreferentzialen erabilera". Miel Loinaz. *Berba* aldizkaria (UZEI)

Azterketa egiteko erabiliko den corpus praktikoari dagokionez, berriz, Euskal Herriko hegoaldeko aldizkari ofizialak (bi autonomia-gobernuetakoak, eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaikoak) hartuko ditugu lagingaitzat.

Abiapuntu horietatik, hiru aztergai nagusi planteatuko dira lanean:

- a) Adjektibo erreferentzialak **multzokatzea**, emandako irtenbideak **zerrendatzea** eta begiratzea bat ote datozen corpus teorikoak jasotako bidearekin. Ondoren, zenbait estatistika-datu eskainiko dira; **erabilera-datuak** izango dira beraz.

b) Gorago aurreikusi bezala, esan genezake bi aldi zehatz daitezkeela arlo honi dagokionez: Euskaltzaindiak arlo honi buruzko erabakia **eman aurretik eta eman ondoren**. Horiexek izango dira, hortaz, lagin-aldiak. Azterketa horrekin, ikusi nahiko genuke norainoko oihartzuna eta arrakasta izan duen arau horrek.

c) Azkenik, tarte berezia eskainiko diogu **lehenengo Jaurlaritzako aldizkari ofizialari** (Gerra aurrekoari), bertan, aldeak susmatuko direlakoan lehenengo eta oraingo erabileren artean.

Equivalencias y uso en euskera de los adjetivos referenciales del castellano.

Toda persona que se desenvuelva en el mundo de la traducción al euskera, es consciente de la facilidad de traducción de los adjetivos referenciales (*entorno político-mediático: ingurumari politiko-mediatikoa*) si se recurre al préstamo lingüístico y calco de estructura; o de la dificultad, en otros casos, (*politika eta komunikabideetako ingurumaria; o politikako eta komunikabideetako ingurumaria; o politika- eta komunikabide-ingurumaria... todas ellas equivalentes*) siempre que se elijan otras técnicas, a lo que habría que añadir, en algunos casos, cierto nivel de inseguridad semántica en cuanto al pleno acierto o no de la equivalencia formada mediante palabras compuestas.

La intuición traductora nos indica que existen diferentes variantes de este tipo de adjetivos, y que, por consiguiente, no se puede recurrir siempre a una única fórmula como lo puede hacer el castellano.

Por otra parte, Euskaltzaindia, a través de la norma aprobada el 27 de enero de 1995, propone el mecanismo de palabras compuestas para la traducción de adjetivos referenciales. No obstante, la misma Academia constata, indirectamente, la existencia de diferentes tipos de referenciales, por lo que propone aquel uso “...siempre que sea posible...”, puesto que la práctica diaria nos demuestra que no es siempre viable valerse de la composición. Dicho de otra manera: existen distintos grupos dentro de estos adjetivos, y si bien en castellano se recurre a una única fórmula, en euskera no podemos reducirlo a un solo mecanismo.

En este contexto, el estudio partirá de unas consideraciones teóricas previamente establecidas:

- a) Normas de Euskaltzaindia (hitz elkartuak/palabras compuestas).
- b) “Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak” (Equivalentes en euskera de los adjetivos referenciales en castellano). Martxel Ensunza. Publicado en la revista *Euskera* de Euskaltzaindia.
- c) “Adjektibo erreferentzialen erabilera” (Uso de los adjetivos referenciales). Miel Loinaz. Publicado en la revista *Berba* de UZEI.

En cuanto al corpus práctico con que contaremos para la confección de dicho estudio, se encuentra un muestreo en los boletines oficiales de las cuatro provincias vascas peninsulares (los boletines de los dos gobiernos autonómicos, y los de Araba, Gipuzkoa y Bizkaia).

Partiendo de estas premisas, el trabajo contará con tres ejes fundamentales de estudio:

- a) **Agrupación**, por categorías, de los adjetivos referenciales, **listados** de soluciones a los diferentes problemas planteados, y análisis sobre la hipotética **concordancia** de estos datos con los previamente establecidos por el corpus teórico. Igualmente, se ofrecerán diversos datos estadísticos, o, lo que es lo mismo, se presentarán **datos sobre el uso**.

b) De lo explicado anteriormente, se puede deducir que existen, en cuanto al campo de equivalencias de adjetivos referenciales, dos periodos bien definidos: uno sería el que transcurre **antes** de la norma correspondiente de Euskaltzaindia, y el otro **a partir de** dicha norma. Dichos periodos van a constituir las dos fases de muestreo. Asimismo, es nuestro objetivo comprobar el nivel de incidencia y repercusión de la norma de Euskaltzaindia en el ámbito escrito, y en concreto en los textos administrativos.

c) Por último, dedicaremos un apartado especial al tratamiento que estos adjetivos recibieron en el **boletín oficial del Primer Gobierno Vasco** (antes de la Guerra Civil), con el fin de identificar posibles diferencias de uso entre aquellos textos y los actuales.

Équivalences et usage en euskera des adjectifs référentiels de l'espagnol

Toute personne exerçant des tâches de traduction vers l'euskera est consciente de la facilité de traduction des adjectifs référentiels (*milieu politique-médiatique: ingurumari politiko-mediatikoa*) si l'on a recours à l'emprunt linguistique et au calque de structure; ou de la difficulté, dans d'autres cas, (*politika eta komunikabideetako ingurumaria; ou politikako eta komunikabideetako ingurumaria; ou politika- eta komunikabide-ingurumaria... toutes équivalentes*), du moment que l'on choisit d'autres techniques, ce à quoi il faudrait ajouter, dans certains cas, un certain niveau d'insécurité sémantique quant à la réussite complète ou non de l'équivalence formée moyennant des mots composés.

L'intuition traductrice nous indique qu'il existe différentes variantes de ce type d'adjectifs, et donc par conséquent, on ne peut pas toujours avoir recours à une seule formule comme peut le faire la langue espagnole.

D'autre part, Euskaltzaindia, à travers la norme approuvée le 27 janvier 1995, propose le mécanisme des mots composés pour la traduction d'adjectifs référentiels. Néanmoins, la propre Académie constate, indirectement, l'existence de différents types de référentiels, raison pour laquelle elle propose cet usage

"... chaque fois que cela est possible..." étant donné que la pratique de tous les jours nous démontre qu'il n'est pas toujours viable d'utiliser la composition. Autrement dit: il existe différents groupes dans ces adjectifs, et même si en espagnol on a recours à une seule formule, en euskera nous ne pouvons pas le réduire à un seul mécanisme.

Dans ce contexte, l'étude partira des quelques considérations théoriques préalablement établies:

- a) Normes d'Euskaltzaindia (hitz elkartuak/ mots composés).
- b) "Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak" (Equivalents en euskera des adjectifs référentiels en espagnol) Martxel Ensunza. Publié dans la revue *Euskera* d'Euskaltzaindia.
- c) "Adjektibo erreferentzialen erabilera" (Usage des adjectifs référentiels). Miel Loinaz. Publié dans la revue *Berba* d'UZEI.

Quant au corpus pratique sur lequel nous compterons pour la confection de cette étude, on en trouve un échantillon dans les bulletins officiels des quatre provinces basques péninsulaires (les bulletins des deux gouvernements autonomiques, et ceux d'Araba, de Gipuzkoa et de Bizkaia).

En partant de ces mêmes prémisses, le travail aura trois axes d'étude fondamentaux.

a) **Regroupement**, par catégories, des adjectifs référentiels, des **listes** de solutions aux différents problèmes envisagés, et des analyses sur la **concordance** hypothétique de ces données avec celles qui ont été préalablement établies par le corpus théorique. De

même, on offrira diverses données statistiques, ou, ce qui revient au même, on présentera des **données sur l'usage**.

b) D'après ce qui a été expliqué antérieurement, nous pouvons déduire qu'il existe, quant au domaine d'équivalences d'adjectifs référentiels, deux périodes bien définies; une serait celle qui a lieu **avant** la norme correspondante d'Euskaltzandia, et l'autre celle qui a lieu **à partir de** ladite norme. Ces périodes vont constituer les deux phases d'échantillonnage. De même, notre objectif est: vérifier le niveau d'incidence et de répercussion de la norme d'Euskaltzandia dans le milieu écrit, et notamment dans les textes administratifs.

c) Pour finir, nous consacrerons un paragraphe spécial au traitement que ces adjectifs ont reçu dans le **bulletin officiel du Premier Gouvernement Basque** (avant la Guerre Civile) afin d'identifier des différences d'usage possibles entre ces textes et les actuels.

Equivalents and use in Basque of referential adjectives in Spanish

All those involved in translating into Basque are aware of how easy it is to translate referential adjectives (*entorno político-mediático: ingurumari politiko-mediatikoa*) if we use linguistic loans and copy structures, and how difficult it is otherwise (*politika eta komunikabideetako ingurumaria*; or *politikako eta komunikabideetako ingurumaria*; or *politika- eta komunikabide-ingurumaria*, all of which are equivalent). To this we must add that in some cases there is some degree of semantic uncertainty as to whether a form using compound words is equivalent or not.

Translators' intuition tells us that there are variants in adjectives of this type, and that we cannot therefore always resort to the same formula in the way that Spanish can.

In a standard approved on January 27th 1995, Euskaltzaindia proposed a mechanism of compound words for the translation of referential adjectives. However the academy also confirmed, indirectly, the existence of different types of referential adjectives, and therefore proposed that their mechanism be used "whenever possible", because in practice it does not always prove feasible to use compounds. In other words these adjectives can be broken down into different groups: Spanish can resort always to a single formula, but this cannot be done in Basque.

In this context, the study took as its base some pre-established theoretical considerations.

- a) Euskaltzaindia norms (hitz elkartuak/compound words)
- b) *Erdal adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak* ("equivalents in Basque to referential adjectives in Spanish). Martxel Ensunza, published in the magazine *Euskera* by Euskaltzaindia.
- c) *Adjektibo erreferentzialen erabilera* ("use of referential adjectives"). Miel Loinaz, published in the magazine *Berba* by UZEI.

The body of texts which we shall be using for this study comprises a sample taken from the official gazettes of the four Basque provinces in the Iberian Peninsula (the gazettes of the two autonomous governments and those of Araba, Gipuzkoa and Bizkaia).

Starting from these premises, our work will concentrate on three basic areas:

- a) Grouping by categories of referential adjectives, lists of solutions to the different problems arising and analysis of the hypothetical matching of these data with those already

established by the theoretical body of text. Various items of statistical data will also be offered, i.e. data on use will be presented.

b) From the above it can be deduced that there are two clearly defined periods in the field of equivalence of referential adjectives: before and after the drawing up of the relevant regulation by Euskaltzaindia. These two periods are our two sampling stages. We also aim to check the degree of influence and repercussion of the Euskaltzaindia regulation in written texts, and specifically in texts concerned with the administration.

c) Finally, we shall set aside a special section for dealing with the way in which referential adjectives were dealt with in the official gazette of the first Basque Government (before the Spanish Civil War), with a view to identifying any differences in use between those texts and present day ones.